

Orojaleak

Irautea da gure lana, eta jendea jaten dugu. Beti bada arrazoiren bat inor larutzeko, haren ustezko keriak aletu eta ahal bezainbat gutxiesteko, alferra da, harroa da, bekaitzak jota dago, paranoikoa da, diruzalea da, zekena da, uzkurra da, makala da, gezurtia da, kokaina hartzen du, alkoholikoa da, mutilari adarrak jartzen dizkio; pertsona adina keria dago haien bila ibili nahi duenarentzako. Hala ere, bada gaur egun, zazpi bekatu kapitalen artean ez agertuagatik, oraingo jendean begietara litekeen eta gaitzik larriena den beste keria bat: pobrea da.



Jira
Xabier Gantzarain

Irautea da gure lana, eta jendea jaten dugu. Eta txerriei ematen dizkiegu hezurak, arrastorik gera ez dadin. Eta gero txerriak jaten ditugu.

Irautea da gure lana, eta ez dugu iraungo. Iraun, betiko gauzek iraungo dute, zazpi bekatu kapitalek, esate baterako, eta jendeak jarraituko du harroa, alferra, zekena izaten, jendeak jarraituko du ergela izaten, ez konturatzen berandu izan arte zer den benetan balio duena, zerk egiten duen bat zoriontsu, nola bizi nahi duen mundualdia. Baina hori utopia da, gurpil berera atxikita jarraituko du munduak, eta bere bihotzari tiro eman zion zoroak esan zuen bezala, miseria ez da sekula amaituko.

Izua Grezian

Umetan txundituta uzten ninduen amaren pasadizo batek: Burgosko prozesuaren kontrako protesta batean grisak oldartu, eta, beldurraren beldurrez, zegoen lekuan iltzatuta geratu omen zen, ez atzera ez aurrera, mugitu ezinik, egurra jasotzeko patutik libratzeko aukerarik ez balego bezala. Nire umetako buruan ez zen kabitzen amak egoera hartan lasterka egiteko gaitasunik ez izatea, atakirik irteko zirkunik ez egitea.

Gerora, haztearekin sena galtzeaz batera, neure baitan sentituta jakin nuen zer zen beldurraren ondorioz zauden lekuan iltzatuta

geratzea. Aurrera egin ezinik. Egurra jasotzeko zain. Eta ez mehatxu ukigarri eta zehatzen aurrean bakarrik, baizik eta, batik bat, bizitzaren eraso zehazgabeagoen pean: ohitura bihurtutako harremanetan, interesa galdutako lane-tan...

Aldaketa eragotzeko armarik indartsuena baita beldurra. Ongi dakite botere-dunek. Horregatik, Europako Batasuneko buruzagiak gogor ari dira astintzen hondamendiaren profezia eta izuaren bandera gaur, Greziako hauteskundeak ez dituzan irabaz, hain zuzen, aldaketa gauza dezakeen indar politikotik bakarrik, Sirya ezkerreko fronteak. Izan dezatela greziarrekin senik eta kemenik egurraren zain geratu ordez aurrera egiteko!



Bira
Idurre Eskisabel

Zuzendaria:

Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Iñaki Pexarroman
Edizio arduraduna:
Andoni Alvarez
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea: Bidera
publizitatea
Lege gordailua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
0712184059

Egoitza nagusia:

Martin Ugalde kultur parkea.
Gudarien Etorbidea, z/g,
20140 Andoain.
Telefonoa:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.info
Posta elektronikoa:
berria@berria.info
Publizitatea:
publi@bidera.eu
Harpidetza saila:
(0034) 943-30 43 45

Date:

17/06/2012
Exemplaire: 2.787
Editore: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Comission paritaire:
0712184059
Delegation Labourd:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK

Araba: Bizenta Mogel, 6.
Posta kodea: 01008
Gasteiz. Telefonoa:
945-15 04 52. Erredakzioko
faxa: 945-14 83 07.
Posta elektronikoa:
araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,
3. C. Posta kodea: 48001
Bilbo. Telefonoa:
94-435 26 00. Erredakzioko
faxa: 94-423 49 75.
Posta elektronikoa:
bizkaia@berria.info.
Lapurdi: Lisses, 3. Posta
kodea: 64100 Baiona.
Telefonoa: 559-25 62 20.
Faxa: 559-25 43 03.
Posta elektronikoa:
lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monaste-
ria, 45, 13. Posta kodea:
31011 Iruñea. Telefonoa:
948-36 66 22.
Publizitatea: 948-36 66 23.
Posta elektronikoa:
nafarroa@berria.info.

berria

Oroimen institutua eta Pariseko printzipioak

Jon Mirena Landa
Zuzenbideko irakaslea EHUn

Maiatzaren 22an Euskal Legebiltzarrean errotatu zen sona handiko lege-proposamen berria: Oroimen, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoa hain zuzen ere. Sona handiko proposamena: bai horixe. Zer eta oroimena, elkarbizitza eta giza eskubideen inguruko politikak bultzatzeko Institutu ofizial eta publiko bat sortzea, non eta indarkeria politikoa lagun izan dugun gure herrian, ez da edozein ekimena.

Lehenengo galdera bada, ordea, halako instituturik behar al dugu? Norbaitek esan lezake jadanik Arartekoak bai Euskadin bai Nafarroan bai Iparraldean baditugula. Ombudsman izaera erakundeok dagoeneko giza eskubideen politikak kontrolatzen dituzte eta, batez ere, hiritarrok ditugun kexa indibidualak kudeatzen dituzte. Alegia, Administrazioen kontrolaz arduratzen dira. Oroimen Institutuak, ordea, ez du helburu nagusi hori: ez da horrenbeste kontrolerako tresna bat izango, gobernuko dinamizatzaile bat baizik. Esan dezagun Institutuak giza eskubideen politikak hobeto, indar gehiagoz, modu artikulatugabe eta sistemati-koago egiteko sortua dela. Bere ikuspegia ez da, Arartekoarekin alderatuta, «kanpoko kontrola», baizik eta «barneko elikatzaila».

Hortaz, holako institutua, badu zentzua. Areago: institutua funtsezkoa dugu gure herrian, iraganeko hainbat giza eskubideen urraketa-

lana oraindik ere ikertu, argitu, justizia, konpondu gabe dagoela. Estatu indarkeriak, ETAK egindakoak, biek premia dute, iraganeko zein etorkizuneko lana ezartzeko, bien kasuetan Egia-Justizia-Konpontzea hirukote behar bezala bermatzeari begira. Ikuspegi honetatik Oroimen Institutuak ere badu beste alderdi positiboa: guda zibilaz, Francok egindako zapalketaz, ETAK egindakoaz eta Estatu indarkeriaz, denetaz batera eta euritik berberapean jarduteko helburua aitortzen duela. Dena batera jartzen hastea, urraketa batzuek eta besteek izan duten tratamendu asimetrikoz bukatuko asmoz ez da berri txarra orain arte gaiotan izan den diskriminazioa eta onartu ezinezko hierarkiarik so eginez gero. Hori bai, lege-proposamenaren oraindik ere sumatzen da, soberan apika, terrorismo lehenesten duen diskurtsoa eta faltan botatzen da aipamen argiagoa Estatuak Konstituzioa eta gero egin dituen giza-eskubideen urraketari buruzkoa: alegia, torturak, bestelako gehiegikeria polizialak, talde terroristak eta inkontrolatuen jardunak antolatuta eta baliatu izanak ez du aipamen egokirik. Azken hori, hortaz, emendakinen fasean hobeto ahal den alderdietako bat da. Institutuaren abiapuntua birlibiltzeko. Edozelan ere, aipatu horri guztiari atea itxi ez izana ez da berri txarra.

Oroimen Institutuak, esandako alderdi positibo batzuk gorabehera, badu, aitzitik, gaxoa den beste alderdi bat, nire aburuz, aldatu beharko litzatekeena: hots, independentziarik ezarena. Esan dugu, halako erakunde bat sortzeko baduela zentzua eta lekua gure administrazio-sarean, gobernuko

barruko dinamizatzailea eta elikatzaila izan daitekeelako. Hortaz, erakundeak lotura eduki behar du gobernuarekin horretan eragina izan dezan, eta gobernu barruan giza-eskubideetan egin behar den lana antolatu, biderkatu eta garatu ahal izateko. Lotura bai, baina, aldi berean, lana egiteko orduan Institutuak independentzia-kuota handi bat bermaturik eduki behar du, haren lana eragingarria izatea nahi baldin badugu. Nazioarteko giza-eskubideen ikuspegitik, Pariseko Printzipioak izeneko orientabidea dugu (Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1993ko 48/134 Ebazpen onartua), mota honetako erakundeak nolakoak izan behar dutenaren gaineko estandarrak ezartzen dituen. Mundu mailan giza eskubideak sustatzeko erakunde ofizialak sortzeko gomendatzen da baina, betiere, gobernuetik independentzia-gutxienekoak baldin badituzte. Eta independentzia, laburbildurik, antolaketa-eredupean eta finantzaketa-eredupean dago. Hona hemen, hortaz, plaza-ratu berri den Oroimen Institutuaren ahulezia nagusia eta hobetu beharrekoa.

Horri begira, ausartzen naiz, bi aldaketa-orientabide proposatzen. Lehenengoa: Oroimen Institutua-

Lana egiteko orduan Institutuak independentzia-kuota handi bat bermaturik eduki behar du, haren lana eragingarria izatea nahi baldin badugu

ren ordezkari nagusia ezin da gobernuak erabakitzen duen ordezkari bat izan, Institutuko zuzendariaren gainean. Eta berdin da gobernuaren alderdia zein den. Orain arte Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideetarako Zuzendaritza edota Biktimen Zuzendaritza izan ditugu eskarmentu, beraien lana egiteko orduan sailburu baten begiepean aritu direlarik. Hala-ekesmak giza-eskubideen lana mugatzen du ikaragarri, eta kolore politikotik aldentzeko zailtasun ukalezina da. Baina ez dago giza-eskubideen alorreko lan serioirik, kolore politikoa alde batera uzten ez bada. Hortaz, Oroimen Institutuak gure herriaren aldeko benetako zerbitzua egin ahal izateko zuzendariak, behin izendaturik, halako independentzia izan beharko luke gobernu egituretatik. Nire ustez, bera izan beharko litzateke pisuzko figura nagusia, inor gainetik eduki gabe eta izendatzeko orduan egon beharko, alderdietatik at jardun ahal izateko.

Bigarren goaldaketa-proposamena aurrekoaren osagarria da. Independentzia ez da bakarrik Institutua gobernatzen duen organigramaren menpe. Funtsezkoa da finantziarioa. Oroimen Institutuaren proposamenaren Gobernuak erabakitzen ditu, urtero, Institutuaren eginkizuma (lan-planifikazioa) eta aurrekontua (dirua). Horrela izan beharrean, nire aburuz, planifikazioa eta aurrekontua Institutuak erabaki beharko litzateke edo behinik behin haiek negoziatzeko modua izan. Oroimen Institutuaren lanaren eta finantzaketaren planifikazioa guztiz gobernuaren esku egotea Giza Eskubideen nazioarteko estandarren (Pariseko Printzipioen) aurka doa. Horra hor lege-proposamenak aurretik duen erronka. Horri buelta ematen ez bazaio, atzean egon daitezkeen borondate onak gorabehera, Institutuak ez luke herri honek merezi eta behar duen giza-eskubideetako erakunde taxuzkoa izango. Baina oraindik bada aldatzeko aukera eta denbora!